

2012ko apirilaren 5ean Athletic futbol taldearen partidu baten ostean, Ertzaintzaren eta herritarren arteko gatazka hasi zen. Ertzainek gomazko pilotak erabili zituzten jendearengan kontrola eragiteko, baina, bat-batean, Iñigo Cabacas izeneko gazte bati jo zion pilota batek. Odolusten hasi zen, eta, berehala, ospitalera eraman zuten. Koma egoeran sartu zen gaztea, baina azkenean hil egin zen.

Klasean ikusi genuen “Iñigo Cabacas. Crónica de una herida abierta” dokumentalean, hainbat lekukoren testigantzak entzuteko parada izan genuen. Bat baino gehiago izan ziren Ertzainak “haserre” zeudela esan zutenak. Adierazi zutenenez, egoera lasaia zegoen egun hartan, pare bat borroka egon arren. Hala ere, “bat-batean” gomazko pilotak jaurtitzen hasi zirela esan zuten. Beraz, gertaera hauen ondoren esan daiteke zuzenbide estatu baten oinarritzko betekizunak bermatu zirela?

Zuzenbide estatua, estatuak muga juridikoak dituela esan nahi du, hau da, legalitate printzipioa duela. Boterea ez da diskreziotza; aurretik onartutako legeetan oinarrituta egon behar du. Zuzenbide Estatu baten oinarritzko betekizunak ondorengoak dira. **Lehena, oinarritzko eskubideen aitortzea.** Honek helburu bezala Giza Eskubideak bermatu behar ditu. Zuzenbidearen mugaketa giza eskubideen arabera eta hauen erabilera bermatuz egin behar da. Espainiako 1978.urteko Konstituzioan oinarritzko Eskubideak 14.artikulutik 29.artikulara daude idatziak. Eskubide hauek, (14. art.-29.art.) konstituzioko 53.2 artikulua adierazten duen moduan, derrigorrez bermatu behar dira. Aitzitik, bermatzen ez badira, eskubide hori ukatu zaion herritarra Auzitegi Konstituzionalera joan daiteke. Lehenik eta behin, 53.1 artikulua babesten duen bezala (14-38), kaltetua auzitegi arrunt guztietara joan daiteke eta ondoren Auzitegi Gorenean amaituz. Baina, ez badu lortu bere helburua, bermatu ez den eskubidea 14.artikuluaren eta 29.artikuluaren artean dagoenez, eta artikulua horiek 53.2 artikulua derrigorrez bermatu behar dituzenez, Auzitegi Konstituzionalera joan daiteke.

**Bigarrena, legearen inperioa da, eta hau Konstituzioko 9.3 artikuluan aurki dezakegu.** Artikulu honek ziurtatzen du boterea ez dela arbitrarioa eta Zuzenbidearen menpe dagoela, hau da, Ordenamendu Juridikoaren menpe. Legearen printzipioak legekotasun printzipioa biltzen du, botere publiko guztiak zuzenduz eta hauek legearen menpe jarritz.

**Hirugarrena botere banaketa da; honek, hiru botereak banatu behar direla dio.** Hiru botere hauek oinarritzko eskubideen bermea ziurtatzeko banatzen dira. Botere bakoitzak bere funtzioa betetzen du, eta bakoitza erakunde ezberdin bati dagokio. Lehenik botere legegilea dago, legeak egiten dituen; botere hau Parlamentuari dagokio. Ondoren botere exekutiboa dator; hau legeak ezartzeaz arduratzen da eta Gobernuari dagokio. Azkenik, botere judiziala, legea betetzen den epaitzeaz arduratzen da eta Justizia Auzitegiei dagokie.

Laugarren betekizunari dagokionez, bigarrenarekin, hau da, legearen inperioarekin lotuta dago. Betebehehar honen arabera, eta konstituzioak 9.1 eta 9.3 artikuluetan adierazten duen moduan, administrazioak legeak jarraitu behar ditu. Hau da, administrazioak ezin ditu bat-batean legeak asmatu. Lege horiek aurretiaz finkatuta egon behar dira, eta, ondoren, administrazioak bete egin behar ditu.

Gure ustez, zuzenbide estatu batek eduki behar dituen oinarritzko eskubideak ez dira bete. Besteak beste, hauek dira Cabacasen auzian bermatu ez ziren oinarritzko eskubideak:

**-Bizitza eskubidea: 15. artikulua:**

15. artikuluan adierazten den bezala, herritarrek bizitzeko eskubidea dute: *“Pertsona guztiek bizitza eta osotasun fisikoa eta moralerako eskubidea dute, eta inoiz ezin dira meneratu torturetara ez eta zigor edo tratu ezgizakor edo itsusietara. Heriotza zigorra baztertuta geratzen da, salbuespen bezala gerrateetarako Armadako zigor legeek zer erabakitzen duten albo batera utziz.”*. Aitzitik, Iñigo Cabacasen kasuan ez zen eskubide hau bete poliziek hil egin zutelako inolako arrazoirik gabe, bizitzeko eskubidea kendu zioten.

**-Norberaren askatasun eskubidea: 17.1 artikulua:**

17.1 artikulua ere ez da betetzen, askatasuna eta segurtasuna bermatu behar duelako: *“Edozein pertsonak askatasun eta seguritate eskubidea du. Inori ez zaio askatasunik galeraziko, artikulua hontan agintzen dena betetzen ez baldin bada eta beste jazoeretan legeak adierazten duen eran.”*. Iñigoren segurtasuna ez zen bermatu, ezta bere askatasuna nahi zuen lekuan inolako arazorik gabe egoteko.

**-Norberaren barrukotasun eskubidea: 18.1 artikulua:**

18.1 artikulua: *“Ohorea, norberaren eta senitarteko barrukotasuna eta bakoitzaren irudi eskubidea garantizatzea.”* Eskubide hau ez zela bete uste dugu; izan ere, Iñigoren irudi faltsu bat sortu zen, honek ez baitzuen inolako lege hausterik egin eta hau delinkuente moduan tratatu baitzen. Merezi ez zuen tratua jaso zuen.

Bestalde, 9.3 artikuluan agertzen den Legearen inperioa ez zen hautsi; izan ere, gomazko pilotak ez ibiltzea gomendatu zuten, baina ez zegoen arauetan eta konstituzioan sartuta oraindik, beraz, ez zen inolako legerik apurtu. Legearen printzipioaren bitartez mundu guztiak eta erakunde guztiek legea jarraitu behar dute eta kasu honetan legea jarraitu zuten inon ez baitzegoen idatzita gomazko pilotak erabili ezin zirenik. Hau gai etiko eta moral bat da, legeak ezin du ezer egin. Poliziak etika eta moral falta frogatu zuten, haiek bazekitelako pilota hauen erabilpena arriskutsua zela eta horregatik debekatuko dituztela; momentu horretan ez zitzairen jendeari min egitea edo jendea arriskuan jartzea axola izan, legez kanpoko ezer ez egitea besterik ez.

Gure ustez botere banaketa ez zen errespetatu guztiz, gobernuak eta botere judizialak kasua poliki poliki garatzea adostu zutela ematen zuelako.